



## Kanflanka leitzarrak ezin izan du Nafarroakoa irabazi

**SEGA** ▶ Lantzeko Dabid Mariñelarenak jantzi du, bigarren urtez, Nafarroako txapela

**SAIOA** ▶ «Ongi hasi nintzen, baina gero betekada-edo izan nuen eta ezin nion bueltarik eman» ▶ 7



Jon Kanflanka, Leitzan bertan jokaturako finalean, lanean. M. SOROA



MADDI SOROA

## Santamañako jaietan, bete-betean

**ASTEASU** ▶ Kirolari lotutako eguna izan zen igandekoa festetan; gaur, Laja eta Landakandari omenaldia eta eskualdekoen herri kirolak ▶ 2

## VILLABONA ▶

## 152 lagunek hartu dute parte XXVIII. Usakume Tiraketan

Eloi Zendoia azpeitiarrak irabazi du gizonetzkoetan, eta Amaia San Sebastian billabonatarrek emakumezkoetan ▶ 4

## LIZARTZA ▶

## Alondegia eraikinaren desegitea geldiaraztea exijitu diote Udalari, herriak behar duela aldarrikatuz

Eraikina saldu eta han etxebizitzak egiteko Udalaren asmoa salatu du Alondegia-Udaletxe Zaharra Bizirik plataformak ▶ 6



Prentsaurrekoa eskaini zuen Alondegiaren Aldeko Plataformak. J. ASTIBIA

ASTEASU ▶ SANTAMAÑAKO JAIAK

# Jende ugari bildu da asteburuan

Gaur, Laja eta Landakandari omenaldia eta bailarakoen arteko herri kirolak

IMANOL GARCIA

Bere azkenera iristen ari dira Asteasuko Santamaña Jaiak, gaur bukatuko baitira. Asteburuan jende ugari elkartu zen egindako ekitaldietan, larunbat gaueko herri afarian, esaterako. Santamañako elkarte guztia bete zen, eta «giro ederra» izan zutela azaldu dute antolatzaileek.

Igandekoa kirolari lotutakoa izan zen. Federatu gabeko txirrindularientzako Andazarrateko Igoera egin zuten goizean. Txemi Saizarrek irabazi zuen, 15'51" denbora eginez. Bigarren Antxon Labaka (16'16") izan zen, eta hirugarren Jose Migel Ermina (16'34"). Emakumezkoetan Josune Sarasola asteasuarra izan zen lehena. 14 urte aspikoetan, hiru lehenak asteasuarrak izan ziren: Aritz Segurola, Urko Arizeta eta Aitor Estarlich.

Arratsaldean zaldi lasterketa izan zen. Zortzi zaldun-zaldi lehiatu ziren, eta Josu Castañares elgoibartarra izan zen lehe-

## GAUR ▶

**11:15.** Meza nagusia. Ondoren, hamaiketakoa.

**13:00.** Herri kirolak bailarakoen artean. Ondoren, trikitilariak: Kupela taldea, eta bertsolariak: Mañukorta eta Zeberio.

**13:30.** Laja eta Landakandari omenaldia

**17:30.** Kalejira.

**Gauean.** Kupela taldea.

**Gauerdian.** Tranpazuloren jaitziera.

na. Bigarrena Asier Mujika zizurkildarra izan zen, eta hirugarrena Iñaki Izagirre asteasuarra. Nahiko borrokatua izan zen lehenengo bien arteko lehia.

Igandean egin ez zuten omenaldia egingo diete gaur Laja eta Landakanda trikitilarietara. Laja gaixo zegoen, eta horregatik atzeratu zuten ekitaldia. Ikusmin handia sortuko duena ere bailarakoen arteko herri kirolen lehia izango da.



Zaldi lasterketak ikusmina sortu zuen, urtero bezala, eta proba ederra ikusi zuten bertaratuek. MADDI SOROA



Jose Miguel Ermina, Txemi Saizar eta Antxon Labaka, Andazarrateko Igoeran lortutako garaikurrekin. HITZA



Aritz Segurola, Aitor Estarlich eta Urko Arizeta, beren garaikurrekin. HITZA

## ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

## EUSKAL JAIA BILLABONA 2006

### ZIKIRO JATEA Uztailak 29 Larunbata

*Itsaskabra budina salsa arrosarekin*

*Nafarroako zainzuriak ozpin-olio saltsa bereziarekin*

*Pikillo piperrak bakailaoz beteta pikillozko saltsarekin*

**ZIKIROA** letxuga eta tipula entsaladarekin

*Mokazko tarta jogurt-krema eta bainilazko izozkiarekin*

*Kafea eta Kopa*

Menua: 20 €

Txartelak salgai:

- Amasa okindegia - Kixubi okindegia - Larrea okindegia -  
Labezain okindegia - Ogi Goxo okindegia -  
Shepherds garagardotegia - Iturrigoxo jatetxea - Garmendia  
Harategia - Arnasa - Iru-Aldeta - Maxola - Joe-Itzalpe

**Oharra:**

Txartelak erosteko azken eguna uztailearen 23a izango da.



ALEGIA ▶ JAIAK

# Txintxarriak kiskalita

Atzo amaitu ziren Alegiako jaiak, eta asteburu luze eta bero baten ondoren, animoak hozteko garaia heldu da

## ESTI EZEIZA

Eman dute eman beharrekoa Alegiako Karmen jaiek. Asteburu luze baten ondoren, lanera eta ohikotasunera itzuli beharko dute gaur alegiarrek.

Beroari aurre eginez, kokildu gabe, jende ugari ibili da kaleetan zehar. Esaterako, larunbatean, 600 lagun inguru bildu ziren Larraitz auzoko plazan, Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Saria ikustera. Maila handiko lau harri-jasotzaile aritu ziren lanean bi ordu iraun zuen saioan. Eta batek bakarrik irabaz zezakeenez saria, hori Izeta II.a izan zen. Bere atzetik, berriz, Irigoien errejidarra geratu zen, eta azken bi postuak Ostolaza eta Izeta III. arentzat izan ziren.

Igandeko ekitaldiek ere arrakasta izan zuten. Jai alternatiboan barruan, Asvinenea taldearen *Farsantes* antzezlanaren izenak izan zen ikusgai. Hala, jende ugari hurbildu zen iluntze partean Gaztetxera, ikuskizunaz gozatzeko. Egitarau ofizialeko ekitaldien artean, berriz, dan-

tza emanaldi polita eskaini zuten Villabonako Oinkari taldekoek.

Aurtengo beste berrikuntzetako bat txistularik egindako kalejira berezia izan zen. Igande goizean, lehen eta oraingo 20 txistujole ibili ziren kaleak alaituz. Eta sortu zuen ikusminaren ondoren, hasiera bateko agitasmoa aldatuz, mezaren ondoren ere txistua joz jarraitu zuten.

Atzoko egunean, jubilatua eta haurrak izan ziren protagonista nagusi. Azken hauek Kulkutaldea antolatutako baserri jokoetan ibili ziren.

Eta esaerak dioen bezala, hasten den guztia amaitzen denez, gisa horretan, Alegiako jaiak ere joan dira. Atzo goizaldean, kalejira ibili ondoren, bere azkena iritsi zitzaion aurtengo txintxarriari. Modu honetan, eta Alegiako ereserkia atzetik zuela, alkateak txintxarria erretzeari ekin zion. Hala, eta San Fermin zaleek dioten bezala, alegiarrek ere 364 egun itxaron beharko dituzte datorren urteko jaiak arte.



Umeak gustura ibili ziren atzo, Kulkutaldea antolatutako baserri jokoetan. E. EZEIZA



Jende ugari bildu zen, Oinkari dantza taldekoak igandean eskainitako emanaldian. M. S.



Gaztetxean izan zen *Farsantes* antzezlaneko irudietako bat. MADDI SOROA

## ▶ TOLASALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** «Ondo iruditzen al zaizu puntukako gidabaimenarekin hartuko diren neurri berriak? Zer bait konponduko duela uste al duzu? Jakinaren gainean al zaude?». Animatu, eta eman zure iritzia!

## iragarki laburrak ▶

### LAN HEZKUNTZA

**Osakidetza.** Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

**Deputazioak.** Deputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaindariak behar

ditu. 943 313782.

**Laborategi teknikariak.** Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. Deitu 943 313782 zenbakira.

**Liburutegi laguntzaileak** behar dira zenbait udaleketan. 943 313782.

**Administrari laguntzaileak.** Anoeta, Beasain, Bergara, Soralue,

Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalekietan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

**Peoiak,** garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitez: 943 313782.

**Haur zaintzaileak,** hezitzaileak.

Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

**Peoiak.** Udalekietan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libreak.

943 313782.

**Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

VILLABONA ▶ KIROLA

# Eloi Zendoia azpeitiarra lehena Usakume Tiraketan

Esualdeko lehena Jose Jimenez zizurkildarra izan zen bigarren postuarekin eta emakumeetan, berriz, Amaia San Sebastian billabonatarra izan zen irabazlea

NOELIA LATABURU

Herenegun Villabonako Izarre zelaia elizantzen topaleku bilakatu zen, XXVIII. Usakume Tiraketako Behar-Zana Sari Nagusiaren harira. Guztietan treheena Azpeitiko Eloi Zendoia tiratzailea izan zen, eskualdeko bai eta elkarteko lehena ere, Jose Jimenez zizurkildarra izan zen, sailkapen orokortzeko bigarren postua erdietsi zuena. Emakumeetan lehena Amaia San Sebastian billabonatarra



152 ehizatari hartu zuten parte lehiaketan. MAIZO SOKA

izan zen. Lehena betaranoa Anjel Lasa bazkidea eta juniorretan Mikel Jimenez zizurkildarra. Parte-hartzaile guztien artean 2. H. eskopetaren zuzendeta Berraniko Iñaki Urdanpilletari egokitu zitzaion. Gipuzkoa osoko partaideek euren eskopetak hartu eta punteria doitzen sailatu ziren lehiaketan. Sargoria goiz eta arratsalde lagun izan zuten 152 partaideek. Rufino Lizmendik TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HIRIARI asatu dionez,

### IRABAZLEAK ▶

#### USAKUME TIRAKETA

Gizonetakoak	
1.ena	Herria
2. Jose Jimenez	Azpeiti
3. Inaki Urdanpilletari	Urdaxo

Emakumeetakoak	
1. Amaia San Sebastian	Villabona
Juniorrak	
1. Anjel Lasa	Zizuri

Beteranoak	
1. Anjel Lasa	Andoain

«bertaratuentzat asperrigaria izan zen eta lanean geundementzat nozagaria». Hala ere, ibuskizun polita ikusi ahal izan zuten, oso maila altua erakutsi baitzuten partaideek. Guztia amaitzen ez ziren ordea, oso fin aritu ehizatariak, ihurutik hiru asmatzea 11 tiratzailek baino ez baitzuten bertan.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



## Udalekuan non-nahi, Tolosako gaztetoen gozagarri

Erredakzioa ▶ Udalekin batera, etxeko bikotxoentzat hamaika ekitaiddi antolatzen dituzte gurean. Hain eta hemen, eskaintza zabala topa dezakeite, opor garaia atseginagoa izan dezaten. Esaterako dagoneko bi aste daramatzate 180 neska-mutillek Laoskorin Baitolako Udaleku Irekietan, «giro ezin hobean» —argazkian, ezkerretan— Egunero ekitaiddi ezberdinak antolatzen dituzte bertan, umeen gozamenara

ko. Ikastolak antolaturiko ludoteka honen helburua da, antolatzaileen esanetan, egure neska-mutillek ondo pasa dezatela eskualde normaltasun osoz erabiltzen. Musika-akordeak, berriz, Tolosako Musika Eskolatik antolaturiko udaleku musikatuetan izan dute ongi igarotzeko parada —argazkian, eskuinetan—. Bertan ere hamaika ekitaiddi antolatu dituzte eta azken egunean jaialdi berezia egin zuten. MAIZO SOKA

### iragarki laburrak ▶

<b>Leaburu bidan.</b> 600 m <sup>2</sup> ko pabiloa, bi solairuetan banatua, 2.500 m <sup>2</sup> ko azalera. <b>Aroeta.</b> Martxoaren 20an. <b>Informazio pertsonala.</b> <b>Akizua.</b> Erakuntza berriko ebe bitartekaria salgai. 4 solairu. <b>Oso bista onak.</b> <b>Anetzeta, Belamizta, Gabiria, Herrialde, Ibarra eta Villabona.</b>	<b>Zinorkiten.</b> Hainbat ebe bitartekari, adositu eta erabiltzeko partaketa. <b>Ibarra.</b> Euskerria kalea. <b>Oso eguna onen.</b> 3 logela, egongela, sukaldaria eta bainugelak. <b>Berrikuntza berria.</b> 250.620 euro. <b>Haztegieta.</b> Erakuntza nahiko berriko 1700 m <sup>2</sup> ko eraikuntza. <b>Tolosa.</b> Erdialdean eraikitua berriko ebeltzitzak. 3 eta 4 logelak, terrazak. <b>Sukalde elkartek.</b> Garajeekin.	<b>Tolosa.</b> Alde Zaharrean hainbat ebeltzitzak 168.285 eurotik aurrera. <b>Tolosa.</b> San Esteban. 2 logela, egongela, sukaldaria, bainugelak. <b>Sarbelko modurak.</b> 198.335 euro. <b>Tolosa.</b> Servas de Jesus. 3 logela, egongela, sukaldaria, eta bi bainugela. <b>Tolosa.</b> Zumalakarregi. 2 ebeltzitzak. 92 eta 97 m <sup>2</sup> , 2 eta 3 logela, sukaldaria, egongela, 2 bainugela. <b>Oso bista ederak.</b> Guztiz berriak. <b>Estrenabizita.</b>	<b>Tolosa.</b> Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldaria, 2 bainugela, 25 m <sup>2</sup> ko trastelekuarekin eta garajeekin. <b>Tolosa.</b> Torrekale. 3 logela, sukaldaria, egongela, bainugela eta trastelekuak. <b>Garaje itxia aukeran.</b> 345.660 euro. <b>Villabona.</b> Kale berria. Eraikitua bertan pisu altua. 100 m <sup>2</sup> . <b>Garaje bitartekari.</b>
---	---	---	---

TOLOSA ▶

## Irakurketa sustatzeko kanpaina Haur Liburutegian

‘Harrotasunez irakurri’ leloarekin, umei tatarajuek banatuko dizkiete maileguekin

### ERREDAKZIOA

Tolosako Haur Liburutegiak Eusko lurraldeko antolatutako irakurketa kanpainan hartuko du parte. ‘Harrotasunez irakurri’ izeneko ekintza, hain zuzen ere, umei zuzenduriko kanpaina hau iragan ostiralean abiarazi zuten eta hiru astez luzatuko dute. Helburua umeengan irakurketa eramateko grina piztea izango da hori dela eta, bestean edota gorputzeko beste atalean itatsita eramateko tatarajuek banatuko dizkiete umei, mailegari emanako liburua itzuli eta irakurri dutela diotenez. Itsa-garriak, beraz, liburu bat irakurri dela esan nahi du, hau da, «irakurteak arrastoa» izten duela adierazi nahi diete gazteak.

Tatarajuek honen irudia egitasmoaren logoa izango da. Banaketaren hiru asteetan zehar puntuek metatzeko aukera izango dute gazteek tatarajuek gehiago eskuratu ahal izateko.

VILLABONA ▶

## Festetako Euskal Jaiari parte hartzeko txartelak salgai

### ERREDAKZIOA

Villabonako jaien baitan, hil honen 20an Euskal Jai antolatu dute. Egitaraua zabala izango da bertan: sagardo dastaketa pintxoan jantzeriarekin, erromeria Astiazararen animaketa eta Juan Mari Beltranekin, ziklo jatea eta Tapia eta Leturia. Txartelak dagoneko salgai jarri dituzte ondoko lekuetan: Amaia, Kixubi, Larrea, Labezain eta Ogi Goxo okindegietan, Shyphris garagardotegian, Iturrigoxo jatetxean, Garmendia harategian, Arnasan, Iru-Aldetan, Maxolain, Joen eta Itzapen.

VILLABONA ▶

## ‘Euskal Herria Sozialista’ aldizkaria, salgai

Euskal Herria Sozialista aldizkariaren bigarren alea kalera irazi berri dute eta dagoneko salgai jarri dute. Euro baten truke izango da eskuragarri, eta hauek dira salmentza puntuak. Tolosako Meskal tabernan, Irurako Ametz estankotan eta Anoetako Itzuli tabernan eta Izasti kafelegian.

VILLABONA ▶

## Bihar, aparteko osoko bilkura udaletxean

Bihar, 20:00etatik aurrera, aparteko osoko bilkura egingo dute udaltzeko batzararekin. 8 atzeragaitzako dituzte; batek, aurreko bilkurari dagokion akta onartzea. Eiz, besteak, Salvadora gusnari dagokionean Plana-mendurako arau subsidiarioetako elementu-aldatzea onartzeko proposamena.

TOLOSA ▶

## Haritze elkarteak Laredora bidaia antolatu du

Haritze jubenlatuen eta pentsiotuen elkarteak Laredora (España) bidaia antolatu du datorren abuztuaren 25erako. Txartelak salgai jarri dituzte dagoneko, elkartearen bertan, datorren hilaren 23a bitarte. Bazkideek 29 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 32 euro.

TOLOSA ▶

## Oargi elkartearen irteera, Picos de Europa

Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du, heldu den hilaren 27tik 29era. Picos de Europa (España) bertara joateko interesa duenak 673 83 05 80 telefono zenbakira deitu beharko du. Antolatzaileek jakitera eman dituzte, 21 urte aspikoek ehuneko 20ko beharpena izango dute.

Uda honetan, hautatu nahi duzun mugikorra **9€** -ren truke

LO FR400, Nokia 6102 edo Sony Ericsson Z520i, hiruak oraindik gaurerako eta gaur.

• Gainera, hitz egin doan asteburu guztietan EuskoLur/EuzkoLur mugikor guztietan.

• Eta aurrezko fakturen % 50. (Beharrezko 3 m. babesa)

**ekhipoliki**

Benetan nahi baduzu, for dezakezu.

EuskoLur EuzkoLur zuzerat

Esakatu informazioa saltokietan edo 900 840 840 zenbakira deituta.

## LIZARTZA ► POLITIKA

INIGO TERRADILLOS

«Alondegia eraikina saldu eta pribatizatzeko asmoaz jabetuta», Lizartzako Udalarri herriaren jabetzako eraikin historikoaren izaera publikoa salbatzea exijitzeko agerraldia egin zuen larunbatean Lizartzako guraso elkarteak, Otsolar dantza taldeak, Gaztetxeak, Otsabio kirol elkarteak, Axurdario herri plataformak, Batasunak eta sentsibilitate ezberdinetako herritarrek osaturiko Alondegia-Udaletxe Zaharra Bizirik plataformak.

Herritarren betebeharrerako, hau da, herriko dinamikari laguntzeko eta eusteko, dantza eta antzerki ikuskizunak, jaialdiak, kanpo harremanak, egonaldiak, otorduak, ikastaroak, erakusketak eta abar antolatzeke erabiltzen dela eraikina gogorarazi zuten; hala, plataforma sortzearen arrazoiak «itxura eta logikarik gabeko desagitea» geldiaraztea eta «salmenta eta pribatizazio asmoak etxeak egitekoak izanik», hori eragozteko direla adierazi zuten. Plataformako kideek esandakoaren arabera, «Udalan egiten ari diren laguntzako arauen errebisioan, 100 etxebizitza baino gehiago begiztatzeko dira», eta euren ustez, «ez da inongo logikan sartzen, herriaren onare historiko bat, eta honetan, etxebizitzak egiteko salmentan jartzea, eta gutxiago herritarrok gure dinamikarako behar dugunearan».

## Hainbat saiakera

Bestalde, eraikinaren desagitea gelditzea exijitzeko hainbat saiakera egin dituztela Udalarriekin, bai idatzi bidez bai eta bilera bat egitea eskatuz, baina ez dutela erantzunik jaso salatu zuen plataformak; erantzunik jaso ez, baina probokazioak jasan dituztela adierazi zuten: «Altzariak kendu, gasa, argindarra eta ura moztu, esaterako, eta azkena duela bi aste, AEK-k alondegia eskatu eta Udalak ezin dela erabili

# Alondegia eraikinaren desagitea geldiaraztea exijitu diote Udalarri

Eraikina saldu eta bertan etxebizitzak egiteko Udalaren asmoa salatu dute, herriak eraikina behar duela esanez



Alondegiaren Aldeko Plataformako kideak, iragan larunbatean eskaintako prentsaurrekoan. Atzean ikusten den eraikina da Alondegia. JAIONE ASTIBIA

erantzun zuenean». Diputazioari ere «herri ondasunen zaintza eta ardura duen heinean», Joseba Egibar Lizartzako alkatearen jokabidearen berri eman diotela eta hondamena galeratzeko eskatu diotela, baina «erantzunik jaso ez» dutela azaldu zuten plataformako kideek.

Honon harira, *Galtzaundi* aldizkariaren iazko ekainaren 10ean Joseba Egibarrek egin dako adierazpenak gogoratu zituzten: «Erabakiak Axurdarioaren aldeko 5 eta 2ren arteko proportzioan guk aplikatu ditugu, proposamenak, politikoki, astakeriak ez badira behin-

tzat; lizartzarrei eman diezaien merezi dutena». Egibarren hitz horiek aintzat hartuta, «Axurdario eta herriko gehien goa Alondegia desagitearen aurka» dagoela esan zuten. Hala, «lizartzarren ordezkari legitimoak Axurdarioak direla», eta *Galtzaundi* aldizkariaren eginiko elkarrizketan «hori onartu egiten duela» uste du plataformak. Ondorioz, «Axurdario herriaren beharretarako behar dela Alondegia eta ez dagoela salgai» argi utzi nahi du. «Biziberritze zeresu bat behar du, eta ez betiko kondenuatu nahi dutenen ekin-tza maltzurra».

## Alondegia

Eraikinak 300 m2 ditu plan-tan, eta ganbera kontuan hartuta 1.200 m2 batzen ditu. Lehenengo solairuan familia bat bizi da, bigarrena, Diputazioaren laguntzaz, euskaltegi-barnetegi moduan erabili izan da orain arte, eta ganbera kirol eta euskara elkarteak erabiltzen dute, eta horretaz gain, antzerki eta danborrada entseguak egiteko eta herriko gazteek ekintzak burutzeko erabili izan dute, besteak beste. ◀

## iragarki laburrak ►

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Andoain.** Altua, igogailuarekin. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua.

Trasteleku. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Andoain.** Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Erdigunea. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. 35.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Erdigunea. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela.

Kalitatezko erreforma. 44.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** 47m2 erabilgarri dituen apartamentua. Sartzeko prest. Igogailuarekin. 29.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Igogailua. 46.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Guztiz eraberritutako pisu ederra. Hiru logela. Terraza. Kanpoaldera. 46.500.000 pezeta.

## iragarki laburrak ►

**LANA**

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuek deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuek deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

## BERASTEGI ►

### Podologoaren bisita izango da larunbatean

Larunbatean, hilaren 22an, izango da Gaztainondo jubilatuen elkartearen podologoaren bisita. Izena emateko 943 68 32 64 edota 943 68 32 02 zenbakietara deitu beharko da, edo elkartera bertara jo, 16:30etik 19:30era.

## GAZTELU ►

### 'Ni arratoi' antzezlanaren ostiralean

Uli Mankomunitateak, ostiral honetan, hilaren 21ean, txotxongilo emanaldia antolatu du. Behibis taldearen *Ni arratoi* antzezlanaren taularatu dute, eta herriko elkartearen 18:00etan izango da ikusgai. Kaleko arratoi baten abenturak kontatzen ditu; bere auzoko lehen arratoi-maskota bihurtuko da eta bizilagun izango ditu emakume bat eta kuki txakurra.

## TELEFONOAK ►

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

► **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
► **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

► **Asteasu.** Medikua: 692423  
► **Baliarrain.** Medikua: 889003

► **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

► **Bidegoian.** Medikua: 681134  
► **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

► **Ikaztegieta.** Medikua: 653329  
► **Irura.** Osasun zentroa: 690720

► **Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
► **Orendain.** Medikua: 655595

► **Orexa.** Medikua: 682228

**Tolosa.**

► Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
► San Esteban: 006800

► Gernikako arbola: 006900  
► Amarozko dispen.: 672637

► Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

► **DYA:** 672536

► Gurutze Gorria: 674888  
► **Villabona.** Anbulat.: 006970

► **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930  
**Garraioak.**

► Renfe: 902 24 02 02  
► Donostiako autobusa: 361740

► Tolosaldea bus: 650621  
► Leitzarar autob.: 948 221015

► Taxia: 670420  
► Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

► Ertzaintza: 538820  
► Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

► Tolargi: 650016  
► Iurrumendi egotza: 670325  
► Tolosa gasa: 675320

## LEITZA ▶ NAFARROAKO SEGA TXAPELKETA

## JAIONE ASTIBIA

Jon Kanflanka leitzar segalari gaztea Nafarroako txapeldu-norde gelditu zen, igandean bere herrian jokatu zuten herrialdeko Sega Txapelketako finalean. Lantzeko Dabid Mariñelarenak irabazi zuen bien arteko finala eta txapela eskuratu zuen bigarren urtez jarraian, horrela oraindano jokatu diren biak beretzat izanez.

Igandean, bero ikaragarria egiten zuen, eta agian horren eraginez, baina iaz baino ikusle gutxiago bertaratu zen Garagartzako belatsora, Nafarroako Sega Txapelketako finala ikustera. 300 bat zaletu bildu ziren, finala jokatu behar zuten bi segalariak ebaki beharreko sei partzelen ingurura; egari zor, askok guardasolak irekita egin zituen aurre, aurrez aurre jotzen zuen eguzki-sapari; izan ere, eguerdi-eguerdia zen lehia hasi zenean eta.

Bi kirolariak beren taldeekin ez zuten itzalaren bila biltzerik izan. Seina partzela zituzten prest, azkeneko goienekoak ttikixagoak, orotara 1.200 bat metro koadroko eremua osatzen zutenak. Hasieratik bizi-bizi hasi ziren lanean Kanflanka eta Mariñelarena: 45 minututan zeinek belar gehiago ebaki. Lantzekoa beti aurretik joan zen; Kanflankak ere erritmo biziarekin ekin zion segari, baina hasi eta ordu laurden ingurura ezina etorri zitzaion.

## Beroak bota

«Hasi, ongi hasi nintzen, baina gero betekada-edo izan nuen eta ezin nion bueltarik eman: bizi samar hasi izanen nintzen akaso», adierazi zion, atzo, leitzarrak berak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. Eta gaztea, arnasa berreskuratzeko, sega maiz-maiz aldatuz aritu zen lanean, erramienta zorrotzu berriarekin, aiseago aritzeko moduan; aholkulariek eta biltzailiek ez ezik zorrotzailiek ere beren lan puska egin zuten, beraz.

Bitartean, lantzarra mailaz maila alde handituz joan zen;



Bi segalariak eta ingurukoak lanean: aurrean Kanflanka eta atzeragoan Mariñelarena. JAIONE ASTIBIA

## Kanflanka leitzarra txapeldu-norde atera da Nafarroakoan

Igandean jokatu zuten herrialdeko Sega Txapelketa Leitza, eta Dabid Mariñelarenak irabazi zuen txapela



Sariekin, erdian Dabid Mariñelarena txapelduna; ezkerrean, Jon Kanflanka txapeldunordea. MADDI SOROA

bakoitzaren bukaeran sega aldatuz, honek ez zuen bere erritmorik jaitsi. Jaitsi baino az-

kartu egin zuen. Bere bosgarren partzela bukatu zuelarik, eta oraindik denbora betetze-

ko 6-7 minutu falta zirela ekin zion azkenekoari. Hau beste sailak baino ttikixagoa izaki,

### JON KANFLANKA TXAPELDUNORDEA

«Ongi hasi nintzen, baina ordu laurdenera-edo betekada izan nuen, eta ezin nion bueltarik eman»

denbora baino lanak bukatzea jo zuen, maila estuxeagoak hartu eta sega-kolpeak abiada bizian emanez: 43 minutu eta 20 segundotan lan guztiak bukatuta gelditu zen eta une horretan bukatu zen lehia ere.

Mariñelarenak, itxuraz behinik behin, fresko antzean bukatu zituen lanak. Kanflankak nekea ageriagoan zuen. Azkenerrako, alde ere nabarmena zen bi segalarien artean.

## Txukuntasuna

Lantzekoak 6. partzela osoa eta 5. ekoan bi bat mailako alde kendu zizkion leitzarrari. Kilotan, 1.581,5 kilo belar ebaki zituen lantzarrak; 1.298 kilo leitzarrak. Aitatu beharrekoa da bi segalariak ez zutela inolako zigorrik jaso, hain txukun aritu ziren lanean, eta kiloetan ez zuten beherapenik jasan.

Mariñelarenak lortu zuen Nafarroako txapela. Bigarren urtea da egiten dela, eta bereztat izan da aurtengoa ere. «Oso-oso ongi aritu zen Dabid. Berak esan zidan, gainera, sekula baino hobekiago dagoela, eta nabaritu zitzaion: teknikoki ere asko hobetu du eta txukunago aritu zen», iritzi zion leitzar gazteak aurkariaren lanaz.

Iazko lanekin parekatuz biek ere askoz ere belar gehiago eta azalera handiagoa ere ebaki zuten igande honetako saioan. Kanflankak, iaz, segan ikasten urtebete bakarrik zeramala, 984 kilo belar ebaki zituen eta aurten 314 kilo gehiago; Mariñelarenak, berriz, 521,5 kilo gehiago ebaki ditu (1.060 ebaki zituen iaz), denborak baino lehenago lanak bukatuz.

Mariñelarenak igande honetan Euskal Herriko finalurrekoan jokatu behar du.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Altzo.** Zikiro jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai Arandia jabetxean, 18 eurotan.  
**Tolosa.** Andorrara irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).  
**Tolosa.** Oargi elkarteak Picos de Europa mendira irteera antolatuta du hilaren 22tik 25era. Interesatuak 637 83 03 80ra deitu.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**

**11:00-14:00.** Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-19:00.** Adi Guri irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
**21:00-22:00.** Zaharrak berri.  
**22:00-23:00.** Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Huaiquiman eta Tolosa Txilen

**TOLOSA ▶** Txileko Santiagoko kaleetan agertu dira, bat-batean, Huaquiman eta Tolosa ikertzaile pribatuak, aldizkari kiosko baten markesinan

JOXEMI SAIZAR

**N**ondik atera dira Huaiquiman eta Tolosa ikertzaile pribatu hauek? Bada, Txileko hiriburuan topatu ditut, aldizkari kiosko baten markesinan, tolosar batek duen jabetxearen bila nebileta.

Laster etorriko omen dira. Hala dio txartelak.


Galdezka ibili arren, ez dut lortu jakiterik zer arraio den iragarki hau, baina badirudi C13 hori telebista kate bat izan daitekeela eta gure bi pertsonaia bitxiak telesail berri bateko protagonistak. Ez dakit ziur. Elkar ikusiko dugula abisatzen dute. Ea egia den!

Bietatik, zein ote da Tolosa eta zein bestea? Pistola duena? Kasualitatez, Huaiquiman da Txileko mugimendu indigena buruzagi ezagunena. Zein bikote klase osatu ote dute bi hauek? Zer ikertuko dute? Bi herrialdeen arteko arazoak? Elkartruke edo anaieratze berri bat osatu behar ote dute bi herrien artean? Pista jarraitu beharko dugu.



Huaiquiman eta Tolosa ikertzaile pribatuak laster izango omen dira hemen. Ea ikusten ditudan! JOXEMI SAIZAR

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

**Julen Garaiburu**  
 (Berastegi). Gaur 6 urte.  
 Zorionak familiaren partetik.

**ZORIONAK**

**Maddi.** Atzo 5 urte bete zituen. Osaba, izeba, Alaia eta Ugaitzen partetik.

**URTE ASKOAN**

**Jon Ander Peña Olazabal.** Gaur 9 urte. Zorionak ebekoen partetik eta bereziki Ane eta Loizen partetik.

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria**, euskaraz
- ▶ **uneoro** informazioa eskura [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

**KONTU KORRONTE** bidez ordainduaz  
**EROSAGOA** eta **2 ZATITAN**  
**ORDAINTZEKO AUKERA**



txartel berriarekin abantailak!  
**beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan**  
 besteak beste



□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**egunean 0,18 zentimoren truke etxean**